

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Euxebi Zabala Zapirain

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1926-2024)*

Aurkibidea



Biografia



Trabaleku baserrian jaio zen Euxebi, Aldura bidean, Errenteria eta Oiartzun arteko mugatik gertu. Hamalau anai-arreba ziren, Euxebi bederatzigarrena izan zen. Ama Lezoko Amuntene baserrian jaioa zen, baina hamazazpi urte zituenean sendi osoarekin Trabaleku inguruko baserri batera joan ziren. Aita inguru bereko Baringarategoikoa baserrian jaioa zuen; baserrian egiten zuen lan eta inguruko mendietan egurra bilduta Errenteriara jaisten zen idiek bultzatutako gurdiarekin, Garmendia okindegikoei egurra saltzera. Ama, berriz, Donostiara joaten zen baserriko esnea saltzera. Beranduago Euxebi eta bere ahizpa ere aritu ziren lan horretan. Trabaleku inguruko Haizate Etxean zuten eskola inguruko neska-mutikoei. Euxebik bertan ikasi zuen Tomaxa irakaslearekin. Hamar bat urterekin eskola utzita ahizpari laguntzen zion Donostian esnea saltzen. 1948an ezkondu zen Santiago Agirrezabala bedaioarrarekin. Hamaika seme-alaba izan zituzten. Jaio zen baserrian bizi izan da beti Euxebi.

Zintak

ERR-030

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-05-10
- **Iraupena:** 107 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Anaia gerran eta arreba pulmoniak jota galdu

- **Erref:** ERR-030/002
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:04:28. **Bukatu:** 00:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra Zibilak 20 urteko anaia ostu zion Euxebiren familiari; 25 urteko ahizpa, aldiz, pulmoniak. Euxebiren ahizpa etxean eduki zuten gaixorik, eta medikua etortzen zitzaien bertara, Oiartzundik. Ahizpa azkenetan zela, apaiza bertaratu zitzaien.

2. Heriotza osteko beila, meza, eta lur ematea.

- **Erref:** ERR-030/003
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:08:12. **Bukatu:** 00:12:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Ahizpa hil zenean auzokoak joan zitzaizkien Zabalatarrei etxera, beila egitera. Zabalatarrak ere joaten ziren beila egitera, auzoan heriotzarik gertatzen bazen. Beila hildakoaren familiari dolua adierazi eta familiari animoak emateko izaten zen. Beilak gau osoa irauten zuen askotan, eta denbora tarte horretan, kafea hartu, kontuak esan eta erreztatu egiten zutela dio. Biharamunean, meza izaten zen eta gorpuari lur ematen zitzaion.

3. Hamar urterekin behi-aurrean

- **Erref:** ERR-030/004
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:12:04. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Hamar urte betetzerako, hamaika lan egina zen baserrian. Esaterako, behi-aurrean frankotan ibilia da, lurra goldatzen. Baita belarra biltzen edo lastoa erremolatxa eta arbi zatiekin nahasten ere... Berak dioen moduan, aziendaren "neguko bizitza" prestatzen.

4. Aita egur garraio

- **Erref:** ERR-030/005
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Euxebiren aitak egurra eramaten zuen Garmendia okindegira, sua egiteko. Egurra mendian bildu, eta egunean bi joan-etorri egiten omen zituen.

5. Donostiako kaleetan ibiltzen ohitua

- **Erref:** ERR-030/006
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:22:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Hamaika urte zituela ahizpa zaharragoarekin Donostiara joaten hasi zen, esnea partitzen laguntzera. Etxez etxe ibiltzen ziren, bezeroen erosotasunagatik, "parrokiari" eusteko. Euxebi esne partitzen hasi aurretik, Oiartzungo Altzibar auzoko txofer batek eramaten zituen Donostiara ahizpa eta inguruko beste hainbat baserritar, autobus txiki batean. Lan horietan hasi zenerako, aldiz, Erreterian tranbia hartuta joaten ziren Donostiara, mandoa zuhaitz bati lotuta utzita. Euxebi Gros auzoko kaleetan barrena ibiltzen zen batik bat; ahizpa, aldiz, alde zaharrekoetan.

6. Lezon ezkondu eta Lesakara bazkaltzera

- **Erref:** ERR-030/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:26:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Euxebik hamahiru urte zituela ezkondu zen haren seniderik zaharrena, baina bera ezkontzara joateko gazteegi, nonbait, eta mandoa hartuta Donostiara bidali zuten esne partitzera. Euxebik dio, bera ezkondu zen garaian gurasoak ez zirela ezkontza ospakizunetara joaten; ezkonberriak, amabitxi eta aitabitxia eta senideak joaten omen ziren. 1940. urtean ezkondu omen zen Euxebiren ahizpa, Lezoko Gurutze Santuaren basilikan, baina gose urteak zirela eta, Lesakara joan ziren bazkaltzera, han Erreterian edo Lezon baino hobeto emango zietelakoan.

7. Argindarra, ura eta su baxua

- **Erref:** ERR-030/009
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:26:25. **Bukatu:** 00:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gogoan dauka jostaketan ez zirela gehiegi ibiltzen. Argirik eta urik ez zen Trabalekun, eta ur bila egunean hainbat aldiz joan behar izaten zuten errekarra, marmita buru gainean hartuta itzultzeko gero. Argindarra Euxebik sei edo zazpi urte zituela ekarri zuten baserrira; indar eskasa, ordea. Sukalde "ekonomika" jarri zutenean, hamabi urte inguru izango zituen.

8. Etxean potajerik inoiz falta ez

- **Erref:** ERR-030/010
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:31:14. **Bukatu:** 00:33:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Trabalekun ez zen behin ere potajerik falta izaten eguerdiko otordurako. Txerri bat edo bi hiltzen zituzten urtean, gainera. Sagar errea sarritan egiten omen zuten, eta baita konpota ere, ardo eta azukre pixka batekin lagunduta. Bestalde, esne-partitzen Donostian ibili ohi zirenez, handik arrain freskoa ekarri ohi zuten, kokotea eta halakoak, "orain ez bezalako arraina". Gauetan, gisatua edo bakailao puska bat patatekin. Untxiak ere izan zituzten, baina azkenerako, kendu egin zituzten.

Transkripzioa

-Zuek zer jaten zenuten orduan?

-Egiya esan gue etxen potajeik ez zen /etzen/ behin'e falta. Eunero eltzeke bat potaje itten zen /ittezen/. Ta geo txerriya nola hiltzen zenun / hiltzezenun/, bat o bi'ro, txerria hiltzen zenun /hiltzezenun/, pues, txerri puska bat bota ta hua partitzen zen /partitzezen/. Ta geo sagarrak izaten zin, uain aldin sagar eerra izaten zen hemen, itten zen, bai. Eta sagarrak eo ta izaten zienin, pues saar errik, o konpota, itten zen ta konpota itten... hua haundiya izaten zen, baakizu, ardo puxkat ta azukre puxkat.

-Eta, postriak eta, hola, egun berexitan e, ba... Gabonetan o holako egun berexitan zerbatte berexigua prepatuko zenuten. Ze izaten zan?

-Ez dakit ba /eztakipa/ nik zer jango genun ordun. Zerbatte izango zen o... Bai, beti extraordinario pixkat zerbait izaten genun /izategenun/. Uain, nola Donostira jotzen zen /jotezen/ beti esnikin, gu ezin giñen kejaute beste askok bezela. Itten zen /ittezen/ arraya ekarri, ro kokote eerra bai, aizu, ta kazulka jartzen zen /jartzezen/ ta, geo...

-[...] beti zerbatte frexkua ekarriko zun handikan...

-Bai, bai, bai... Uain ez bezelako arraya. Hola, kokotia ateratzen zenun / ateratzezenun/ leatz haundiya, belarriyan atzetikan, ta harek mami asko eukitzen zun /eukitzezun/. [...] gañekun berriz gixarua izaten zen /izatezen/ gabeako, normalin.

-Gixatua?
 -Bai.
 -Patata bakaillua, bakaillu haundiya hemen eoten zen zintzillik; harei puska kendu ta patata bakaillua, ta geo gisaru pixkat o bueno, bizitza korrientia hola. Ta txerriya hiltzen zenin txerriya pixkat...
 -Eta, konejuak eta ollaskuak eta, ez zenittuzten eukitzen?
 -Konejuk euki genittun geo. Ni neska koxkorra nintzala gustatu iten ta! [...]
 Nee garaian hasi zien. Bai. Eta geo puxka'at o, baña azken aldin dexente eduki genun, uaintxe... Ez dakit ba /eztakipa/, hamabost bat urte'ro... Ta geo kendu in genittun. Beak'e lana zuten.
 -Bai.
 -Denea alletu ein behar zendun. Konejuak esaten da biñon, beti gañian behar duzu /bertzu/ ta... Garbitasun pixkat'e ber du...

9. Trabalekuko sagardoa

- **Erref:** ERR-030/011
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:33:41. **Bukatu:** 00:37:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Hainbat sagar mota izaten zen Trabalekuko sagastietan. 1943. urtera arte auzoko dolarean zapaltzen zuten sagarra. Auzoko dolaretik baserrirako bidea txar askoa zen, ordea, eta azkenerako, baserrian ormigoizko dolarea eraiki zuten. Dolaretik ateratako lehen zukuaren gozoa, zizarrarena, gogoan du bereziki. Haurrek otorduetan sagardo hutsa edatea gaizki ikusia omen zegoen, eta pitarra edaten zuten: sagardoa urarekin nahastuta, alegia.

Transkripzioa

-Esan duzu /esantzu/ hemen sagarronduek-eta asko zenituztela.
 -Han bihan bai, saasti haundiya zen.
 -Sagastiya...
 -Bai. Saasti haundiya zen.
 -Ta? Sagar klase asko zien?
 -Bai, bai. Han klase asko zien. Esaten omen ziguten /satementziguten/ ez dakit /eztait/ zemat eta sagar klase gehio, pues, zea dakatela: saardua itten duzun /ittezun/ denbuan, "que es mejor". Hobeto dela.
 -Hobia atetzen da ez?
 -Bueno, denakin nahastu ta...
 -Eta zuek bazenuten tolaría?
 - Bai, uain deseina dago, hor dago /do/, bihan, zoluan... [...] ez genun /ezkenun/, auzuan zen, tolaría, ta hara eramaten zen sagarra, ta handik ekartzen zen geo, biño, oso bire txarrakin, e! Katxarro baten ekartzen zuten ta geo kupela bete.
 - Oseake zuek hemen etzenuten sagardua iten.
 -Geo bai. "en año cuarenta y tres" in zen zea, tolaría. Harea eamaten'e lan haundiya ta... Ekarri zen. Ormigoizkua in genun. Han eurrezkua zen. Hor, Egieder o beste itxi hortan. Horrea eamaten zen.
 -Eta? Eramaten zenuten sagarra
 -Bai, bai, bilduta eaman ta geo hua han goxo-goxo itten zenian /ittezenin/ jotzen zuten. Uain ya segittun jotzen da biño, geo makinak daude, presiyu haundikuk, uain kentzeko, sagardua, biño ordun hola, guri-guri egin arte /iñarte/ eukitzen zen ta...

-Eta gero sagardua ya iña nola ekartzen zan berriro honea?
 -Iriyakin, hola, bi iri pare jarri ta malda hoi atetzeko gaizki ibiltzen zin ta!
 Ez, lana haundiya izaten zen udazkenen, e!
 -Ta ze ekartzen zan garlian?
 -Hoi da! Garlia! Ta geo botzen genun kupelaa o barrikara'ro... Barrika izaten da kupelan erdiya bezela o txikiyago o... Barrika esaten zaiona, hola, koxkor bat. Ta kupela berriz... Segun, kupelak'e, batzuk haundiyak bestik ttikiyak... Ba hemen sagardua're saltzen zen urte batzutan.
 -Saldu're iten zenuten?
 -Bai. Familiyan. Azkeneko... Gu ezkontzeko aurreko urtia o ez dakit zer zen. Biño familia bihar duzu /bihartzu/ ta, gañea hemen, baserriko batzuk ta,
 -Ta pitarra ta zizarra ta hoiek e...
 -Zizarra da lehenengua. Bai. Itten zen, hua gozo-gozua...
 -Gozo-gozua, ezta?
 -Bai, ta geo, beealaxe zeatzen zen, mikaztu'ro... Lehenengo zizarra.
 -Bai.
 -Lehenbiziko pixar hoiek itten genittun...
 -Ordun zuek otordutan ohittura izango zenuten sagardua eratekua, ezta?
 -Pitarra itten zuten. Umia, gaztia... txarra zela saardo hutsa ta, beti ura bota jartzen zuten kupel bat, gurasuk, ta handik botillak ekartzen zin bi ro hiru ba !... Nahi zuten adina!
 Oseake zuek umetatik sagardua eran dezue...
 -Bai. Nik asko... Falta haundiya hartu niyon hanka hautsi nunin, geo enbolia eman zitten, ta esan ziaten alkohol ta... Biño mira in nun lehenengotikan, ta uain berriz, uain iruitzen zait, neetzako zakarra o... Urakin, urakin ohittu gea, bai...
 -Bai, ohittu in zea, biño hasieran zailla...
 -Bai, ohittu arte bai, ohittu arte bai. Zetik ume-umetik haretxekin ohittu! Pitarra. Biño geo ez... Hola...

10. Belaztegiko amona Tomaxa irakasle

- **Erref:** ERR-030/012
- **Iraupena:** 0:05:31. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:42:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

'Belaztegiko amona Tomaxa' esaten zioten emakume bat izan zuten irakasle Euxebik eta bere senideek. Jaunartzea egin arte aritzen omen ziren Tomaxarekin, arratsalde, eta dotrinaren arrimuan idazten, irakurtzen eta oinarrizko eragiketak egiten ikasi zuten, gutxi-asko.

11. "Gerra onena baino, bake txarrena hobeto da"

- **Erref:** ERR-030/014
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:49:16. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra Zibila piztu zen garaian, Trabalekun ezarri zuten frontea bi bandoek. Euxebik gerraren oroitzapen gutxi du, baina dituen apurrak, denak txarrak.

12. Erreterian ezkondu eta Martutenera bazkaltzera

- **Erref:** ERR-030/016
- **Iraupena:** 0:09:00. **Hasi:** 00:56:08. **Bukatu:** 01:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Ongi gogoan ditu bere ezkontza eguneko atzera-aurrera guztiak. Erreterian ezkondu zituen Don Robertok. Trabalekutik kalera oinez abiatu ziren, soinekoa eskutan, gero ezagun baten etxean arropak aldatu eta parrokiarantz abiatzeko asmoz. Ezkontza hamaiketarako hitzartuta izanagatik, goizeko mezara ere joan ziren senar-emazte gaiak, jaunartzeko, eta baraurik. Ezkondu eta gero, Martutenera bazkaltzera. Ezkontzeko soinekoa esne-partitzaile batek egin zion, bi urtez Frantzian jostun ibilitakoa. Euxebiri neurriak hartu eta manikira pasatzen omen zituen gero; lagun hark hala egiten zuen lan. Bi hilabetez ari izan omen zen esne-partitzaile donostiarra Euxebiren soinekoa josten, eta Euxebik lagundu egiten zion, tarteka.

13. Haimaika seme-alaba, denak etxean jaioak

- **Erref:** ERR-030/017
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:05:08. **Bukatu:** 01:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Hamaika seme-alaba ditu eta guztiak etxean jaiotakoak dira. Lehena, ahizparenean, baina gainontzeko denak, Trabalekun, praktikantearen eta ahizpen laguntzarekin.

14. Praktikantearen lanak erditzetan

- **Erref:** ERR-030/018
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 01:06:50. **Bukatu:** 01:10:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Umea jaio aurretik praktikantearen bila joan behar izaten zen lehenik. Euxebirengana ez zen sekula berandu iritsi. Euxebik ez du inoiz analisirik egin haurdun egon den bitartean, eta guztia ongi joan izan zaiola dio, nahiz eta bi haur galdu. Praktikanteak erditzzen laguntzen zuen. Haurrari zilbor-hestea moztu, haur-laguna (ume-ondoa, plazenta) baztertu eta haurra garbi-garbi

uzten zuen amaren besotan. Ostera ere egiten zuen etxera bisitarik, ama eta haur jaio berria zer moduz zeuden ikustera.

15. Edoskitzea, haurrak lehen bi hilak bete arte, egun osoz

- **Erref:** ERR-030/019
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 01:10:27. **Bukatu:** 01:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Seme-alabei lehendabiziko bi hilabeteetan egun osoz eman izan zien bularra Euxebik. Bigarren hilabetetik aurrera, ordea, lanean hasi ohi zen bera, eta haurrei etxeko behien esnea ematen zieten, tututik, Euxebi etxean falta zen garaian. Amaren laguntza izan du beti Euxebik haurrei kontu egiteko garaian, eta baita seme-alaba zaharrenena ere. Haurrak gaixotzen baziren, Erreteriarara zein Oiartzunera eramaten zituzten. Sarna, eskarlatina, paperak edo eta txarranpina (elgorria) pasatakoak dira, besteak beste, Euxebiren seme-alabak.

16. Trabalekun ez da seme-alabarik bizi

- **Erref:** ERR-030/021
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:18:36. **Bukatu:** 01:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bere ustez gaur egun ez dago etorkizun handirik baserritik bizi nahi duenarentzat. Hamaika seme-alabetatik hamar ezkondata baldin baditu ere, bakar bat ez da baserrian geratu.

17. Garai batetik hona dena aldatu da

- **Erref:** ERR-030/022
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 01:19:56. **Bukatu:** 01:24:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Bizitza asko aldatu da Euxebiren ustez, garai batetik gaur arte; jendearen izaeratik hasi eta lan egiteko modura. Auzolana gutxitu egin da.

18. San Juan Xarreraino mendiz mendi, batere giharretako minik gabe.

- **Erref:** ERR-030/023
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 01:24:49. **Bukatu:** 01:28:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Ardiei kontu egitera bidaltzen zuten Euxebi, honek sei urte betetzerako. Hala ere, esneki gutxi egiten zuten ardi haien esnearekin. Igantziko San Juan iturrira (San Juan Xarrera) abiatu ziren batean dastatu omen zuen mamia lehen aldiz.

19. Aranoko San Roke basiliza

- **Erref:** ERR-030/024
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:28:27. **Bukatu:** 01:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Aranoko San Roke basilizaraino bi ordu eta erdi inguruko bidea zuten Trabalekutik, eta Euxebi hiru bider-edo joan zen haraino. Urtean behin ematen omen dute han meza, abuztuaren 16an. Bestalde, Munoaundiko errosarioak eta Txikiardiko diru-bilketak gogoan ditu Euxebik.

20. Erramu hostoa eta ur bedeinkatua

- **Erref:** ERR-030/025
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:31:30. **Bukatu:** 01:34:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Euxebik gogoan du, gazteago zenean, trumoa entzun ordurako kandela piztu eta erramu hosto bat botatzen zela sutara. Ura, aldiz, Aste Santuan bedeinkatzen zuten, eta urtean zehar baliatu, etxean inor hiltzen bazen.

21. "Umeak beti berera jotzen du"

- **Erref:** ERR-030/026
- **Iraupena:** 0:05:28. **Hasi:** 01:34:02. **Bukatu:** 01:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Barrez hasten da Euxebi haurrak zireneko bihurrikeriei buruz galdetuz gero. Ahal duela, umeak beti berera jotzen duela dio Euxebik, eta haren ustez, ez ikusiarena egin behar izaten da sarri hurrekin, eguna errieta ematen pasako

baikenuke bestela. Kontu irrigarriak gogora etortzen zaizkion aldiro, barrez lehertu ohi dela aitortzen du Euxebik. Eta alferrik da saiatuta ere; ezin izaten dio eutsi. Behin, anaia txikiari barre egiteagatik jo zuen aitak. Euxebiren ustez, merezia izan zuen. Mezetan barregura sartu izan zaionetan ere ez du ederki pasa izan, esan bezala, berak ez baitu barrea saihesteko abilitadakerik.

22. Haurrak gaizki eginez gero, kargu hartu behar zaio

- **Erref:** ERR-030/027
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:39:30. **Bukatu:** 01:42:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Gaurko egunean helduekiko errespetu gutxi sumatzen du Euxebik haur askorengan. Ez da jotzearen aldekoa, hori ez. Baina bai gaizki egiten dutenean kargu hartzearen aldekoa, haurrak zuzen heztekotan, behintzat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com